


ARGIA.EUS/LARRUN

# JOSU URRUTIKOETXEA

ELKARRIZKETA



**LARRUN** #317

# "MILAKA ATXILOTU, TORTURATU, HILDAKO ETA SUFRIKARIO IZUGARRIAREN OSTEAN, EZKER ABERTZALEA LEHEN INDARRA DA EUSKAL HERRI OSOAN... HORI NONBAITETIK ETORRI DA"

EGILEA | LANDER ARBELAITZ MITXELENA

AZALA | MAIALEN ARANA URBIETA ELKARRIZKETAKO ARGAZKIAK | DANI BLANCO

**F**ernando Alonsok idatzi duen *Josu Urrutikoe-  
txea, belaunaldien arteko kate-begia* liburua  
(Gara, 2025) besapean hartuta jo dugu Zi-  
burura (Lapurdi). Frankismo betean 17 urterekin  
ETAn sartu eta 68 urterekin, Marixol Iparragirre-  
rekin batera, erakunde horren azken agiria irakurri  
zuen pertsonarekin bildu gara bertan.

Bere bizitzari errebasoa eginez, Euskal Herrian az-  
ken hamarkadetan eragin ukaezina izan duen era-  
kunde armatuaren historian murgilduta igaro dugu  
ordu eta erdi Maitenia tabernan, GALEk 1985ean bi  
pertsonek hil zituen lekutik metro gutxira.

ETAren borroka armatua amaitu zela 15 urte pasa  
diren arren, mendeku gosez, Espainiako botere fakti-  
koek espetxean sartu nahi dute, lortu ez duten garai-  
kur bat bailitzan. Ez diote barkatzen, herri txiki baten  
askapen mugimenduaren izenean, bere akats eta  
*azierto* guztiekin, estatuari tamainako desafioa egin  
zion erakundeko kide esanguratsua izatea, politikoki  
belaunikatzea lortu ez dutena. Izan ere, Parisen egin  
berri dioten epaiketa amaituta, 75 urterekin, berriro  
ere kartzelara joateko mehatxua gainean duen arren,  
alai aurkitu dugu, bere testigantza eta urteen joana-  
rekin atera dituen ondorioak partekatze gogoz, eta  
bere ideiei uko egiteko inolako asmorik gabe.

---

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.960 zenbakiarekin banatua

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOIA S.A.L. HELBIDEA: ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA TELEFONOA: (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS INPRIMATEGIA: ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA DISEINUA: MAIALEN ARANA URBIETA

2026ko apirilaren 26a

---

## ■ Liburua idatzi duzue zure bizitzari buruz. Transmisioaren gaiak kezkatzen zaitu?

Bai. Esan zahar batek dio ezin dugula jakin nora goazen ez badakigu nondik gatozen. Ez da gaurko kezka eta ez naiz azken urte hauetako historiak bakarrik ari, ez ezker abertzalearen historiak edo etsaiek “kontakizunaren bataila” deitzen dioten horri buruz, askoz urrunago noa. Adibide bezala, euskararekin gertatzen ari dena. Egia da faktore askok eragiten dutela gaur egun hurrek eskolatik kanpo erdarak edo *euskañola* erabiltzea, baina gaia transmisioarekin ere lotuta dago. Haur bati ez badiozu erakusten euskara zer den, ikusita zer nolako indarra duten beste hizkuntza batzuek eta teknologia berriekin nolako hizkuntza inbasioa dugun, gerta daiteke normaltzat hartzea hurrek “euskararekin ezin dut hau egin” sentitu eta beste hizkuntzetara jotzea. Agian nik beste garai batzuk bizi izan ditudalako da, baina euskara beti ulertu izan dut tresna politiko gisa, herria egiteko, borrokatzeko, sentitzeko eta hori hurrei transmititu egin behar zaie. Bestela...

Gogoan dut kartzelatik atera nindutenean 2000. urtean, parlamentuko lanarekin batera Bata-suna prozesuan herriz herri nentzela, behin bilkura batera joan nintzela Zeberio herrira. Nire amaren herria da eta betidanik izan da euskaldun peto-petoa. Francoren garaian ere, Ugaon ez zen hitz egiten, eta ondoan zegoen Zeberion etorkinek ere euskaraz ikasten zuten. Esan bezala, joan nintzen herriko plazara eta zain nengoela haurrak atera ziren eskolatik. Eta, non eta Zeberion, denak barra-barra gaztelaniaz hasi ziren jolasean! Hori kristoren ostia izan zen niretzat. Beraz, bai, transmisioarena benetan gai politoa da.



## ■ Zure bizitzari errepassoa ematen hasi aurretik, beste galdera bat: nolatan hartu zenuen parte Jordi Évole kazetariaren ‘No me llames Ternera’ dokumentalean?

Hasieratik banekien tranpa bat izan zitekeela, baina ikusita zer nolako programak egiten zituen kazetariak, zein estilokoak, eta Espainiako Estatuko beste herrialdeetako publikoari begira zela, onartu egin nuen. Arrisku bat zen, eta egia da oso gogorra izan zela, egiteko manera hori, etengabe hormaren eta ezpataren artean jartzen zaituelako. Nik banekien zein zen beren asmoa: niri esanaraztea horren edo besteen aurka nengoela, eta galderak erasokorrrak ziren zentzu hori zutelako beti. Tranpa horretan ez nintzen erori

nahiz eta kostatu zitzaidan. Hala ere, ez dut hain negatiboa izan nahi eta uste dut Espainiako Estatuko publikoak entzun zituela entzun gabeko gauza batzuk. Eta ez hori bakarrik, Euskal Herrian bat baino gehiago hurbildu izan zait zorionak ematera, hain zuzen ere, horregatik, ordura arte ez zelako inor gai izan esateko nik esan nituen gauza batzuk.

## ■ 1950ean jaioa zara Ugaon. Nola oroitzen duzu gaztaroa?

Haur txikia nintzelarik ikusten nituenak *flash* batzuen gisan oroitzen ditut. *Escuela nacional* deitzen ziren horietan, adibidez, espektakulua ematen zen: haurrak ilaran jarrita *piperpotoa* altxatzen eta jaisten, *Cara al Sol* abesten zuten bitartean.

Nik zortea izan nuen. Herrira etorri berria zen Josefina Omaetxebarria irakasleak eskola pribatu bat ireki zuen Elizatik at. Herriko erregimeneko enpresaburu bati esker lortu zuen, nahiz eta frankista bat izan. Bertara bidali ninduten ni. Eskola txiki hori emakumea bizi zen etxean hasi zen, gela batean, eta pixkana handitzen joan zen. Urtean behin irakaskuntzako inspektorea pasatzen zelako eta galdetzen bazuten badaezpada ere jakin behar zirelako ikasi behar izan genituen *Cara al sol* eta *Oriamendi*, baina guk ez genituen sekula abestu *ostiakeria* horiek. Gure arteko giroa eta harremana irakasleekin oso ona zen, eta txiki-txikitatik emakume horrek irakatsi zigun zein garrantzitsua den errespetuz jokatzea besteekiko, ardura izatea norberarekiko eta besteekiko. Eskola gaztelaniaz zen, baina eskolaz kanpo batzuetan euskaraz hitz egiten zuten gurekin. Gernikarra zen Josefina eta bonbardaketan etxea suntsitu zioten. Familia Okzitaniako Tolosara joan zen, eta gero bera amarekin Ugaora etorri zen bizitzera. Gernikako bonbardaketari buruz, adibidez, berak bizi izandakoa kontatzen zigun, ez liburuetan jartzen zuena. Momentuan ez duzu baloratzen, baina gero konturatzen zara hori bizi izanak, eta ez faxismoak inposatutako eskola mota hori, ez duela preziorik.

### ■ Noiz hartu zenuen kontzientzia politikoa?

Gaztaroan, aurrerago. Gure herrian, euskara bakarrik etxean erabiltzen zen. Kanean, nahiz eta euskaraz jakin, ez zuen inork hitz egiten. Jauntxo *faxa* batzuk zeuden gainera, besteren artean gerra ostetik hil arte egon zen alkatea -gure abizen bera zuen baina ez zen familia-. Haurra zarelarik entzuten duzu 1936ko Gerrako erreketek txapel gorriena, irrati klandestinoak dauzka jendeak, auzokoez ez entzuteko ozen ez hitz egiten ikasten duzu... ez duzu ezer ulertzen, bai-



Ugaoko jaietan. Josu, soinu-jolearen azpikoa da, eta bere aurrean Jose Miguel Beñaran Argala dago.

na giro hori geratu egiten da. Aitak eta amak, aitak batez ere, ez zuten gerraz gehiegi hitz egin nahi izaten, eta kanpotik etortzen zen jendea aritzen zen horretaz gehiago. Pixkana joan nintzen kontzientzia hartzen. Bizipenetatik abiatuta, kontakizun horiekin, apurka konturatu nintzen zerbait dagoela gure aurka euskaldunak garelako.

Eta arlo sozialetik berdin. Aitak, nahiz eta baserri mundutik etorri, enpresa batean egiten zuen lan galdaragile eta beren kexak entzuten nituen. Baina EAJkoa izaki, patroia- ren aurka ezer gutxi, "hark lana ematen digu" eta halakoak baizik. Garai hartan esaten zen euskaldun ona izateko langilea izan behar zela, ez lapurra, zintzoa eta gainera giritinoa. Eta horrek poliki-poliki markatu ninduen. Aurrerago, beste gauza batek ere markatu ninduen: nire familian zer nolako jarrerak

zizuten etorkinekiko, jeltzale peto-petoak izanik. Gaur egun ere hala egiten dute, baina garai hartan etorkinekiko mesfidantza handia zabaltzen zuten. Zenbat aldiz ez ote nituen etxean entzun "kontuz, ez zaitez joan haien etxera, horiek beste ohitura batzuk dituzte", "horiek ez dira gu bezalakoak" edo "belarrimotz" eta halakoak etorkinen seme-alabei buruz. Askoz arrazakeria eta xenofobia gehiago zegoen Espainiako Estatutik etorritako jendearekiko, magrebtarrekiko baina, adibidez. EAJk XX. mende hasieratik ikuspegi hori sartu zuen. Madarikatua dira hori saldu zutelako urte luzez. Gainera, garai hartan Hego Euskal Herriaren akulturalizazioa eta euskararen galera migranteen errua zela esan zutelako daukagu gaurko egoera, hein handi batean. Egoera aprobetxatu zuten, baina baita PCE eta PSOEek ere, beren al-



**“EUSKALDUNAK  
MIGRANTEEN AURKA  
JARRI ETA PERTSONA  
HORIEK ERRUDUNAK  
BALIRA BEZALA SALTZEA  
EGUNEN BATEAN  
ORDAINDU BEHARKO DUTE  
JELTZALEEK”**

dera. Gizon-emakume horiek ez zekiten nora zetozen eta gaztelaniaz hitz egiten zenez, Espainiara zetozela uste zuten. Euskaldunak gaixo horien aurka jarri eta pertsona horiek errudunak balira bezala saltzea egunen batean ordaindu beharko dute jeltzaleek.

■ **Mundua pil-pilean zen 1968an: Pariseko Maiatza, Senegalekoa, Vietnam, Pragako udaberria, Martin Luther King, Malcolm X, Gerra Hotza, Che Guevara, Mexikoko ikasleak, Txinako iraultza kulturala... eta zu, 17 urterekin ETAn sartu zinen. Nolako zen zuk aurkitu zenuen ETA? Zein zen zure lana?**

*Erakundea* garai hartan lau frontetan banatua zegoen eta gure zeregina fronte politikoa eta fronte kulturala ziren. Kanpaina batzuk egiten ziren eta horren kari propaganda banatu, pintaketak egin eta informazioa lortu, *txakurrak* nola mugitzen ziren, harrobietan zer egiten zuten eta abar. Ezer gutxi. Maiz esan dudana bezala, gure formazioa oso eskasa zen, nahiz eta *Erakundea* formazio politikoa ematen hasi zen zituen bitartekoekin. Garai hartan, zuk aipatutako borroka horiei buruzko informazioa aurkitzea oso zaila zen. Behin, Bilboko udal liburutegian

Mexikoko mende hasierako iraultzari buruzko liburuak aurkitu eta irentsi nituela oroitzen dut, baita garai hartan Israelekiko miresmena genuela ere, kibutzen antolaketa zela eta. Argi dago, gai horretan, oso kutsatuta geundela.

■ **1971n Burgosko Epaia kalean zela, Espainiako Poliziak Bilbon sarekada egin eta zure orduko arduradun Karmelo Garitaonandia atxilotu zuen. Ihes egin zenuen 20 urterekin eta Donibane Lohizunera (Lapurdi) heldu zinen. Jada ez zen ezer ere berdina izango. Garai hartako Josuri zerbait esateko aukera bazenu, zer esango zenioke?**

Galdera zaila da, baina ikusita zer nolako bide luzea egin dugun –ez nik bakarrik, militante askok baizik–, esango nioke prestakuntza teorikoa jasotzeko aukera baliatzeko ahalik eta gehien. Eta Ipar Euskal Herriko jendartean hasieratik gehiago murgiltzeko ere bai.



**“IZAN DITUDAN GIZON-EMAKUME KIDE BATZUEK, NIRE USTEZ, EZ ZUTEN BEHAR ZEN PRESTAKUNTZA MAILA ERAKUNDEKO MILITANTE IZATEKO”**


■ Zure liburua irakurri arte ez nekizkien ETak turismoaren industriaren aurka egindako zenbait kontu. 1972an, esaterako, Zarauzko (Gipuzkoa) golf klubeko zuloak eta egoitza suntsitzen saiatu zineten, baina gaizki atera zitzaizuen. Zein zen turismoaz egiten zenuten irakurketa?

Esan dezakegu egungoaren aurrekaria zela. Mende hasieran jada Zarautzera Espainiako Estatuko aristokrazia joaten zen, Ipar Euskal Herrian Biarritzekin gertatu bezala. Ikusten genuen zer gertatzen zen Gipuzkoako kostako leku batzuetan eta Bizkaiko toki aberatsetan, eta ondorioek kezkatzen gintuzten: monolaborantza ekonomiko turistikoa, kanpotik gehienbat jende aberatsa etortzea, jadanik hedatuta eta gainezka genuen kultura espainiarraren korrontea indartzea... arrisku bezala ikusten genituen eta turismoaren joera hori era batera edo bestea moztu behar zela uste genuen. Gainera, garai haietan hasi ziren garatzen toki jakin batzuetan kristoren kirol portuak eta inguruko azpiegiturak. Hori zen helburua.

■ Akzioa-errepresioa-akzioa estrategia erabiltzen zenuten. Baina nabarmentzen duzu ETA-ren helburua ez zela soilik sistemaren errepresioari erantzutea, helburuak politikoak zirela. “Helburuek beti politikoak izan behar

zuten eta militante batek ideia hori oso barneratua izan behar zuen ETAn, erakunde hori borroka armatuan jarduten zuen erakunde politikoa zelako, eta ondorioz, militanteek oinarri politiko hori zaindu behar zuten”. Hori liburuan hainbat aldiz azpimarratzen duzu eta iruditu zait iradokitzen dela hori une ugaritan ez zela zaindu. Hala da?

Hor bi kontu daude. Nik ez nuen hori esaten bakarrik momentu batzuetan hori ez delako zaindu –hala da–, baizik eta benetan horrela uste izan dudalako. Etsaien aurka eramaten genuen borroka –gaur egun ere borrokan ari gara, baina beste era batera–, borroka bortitza zen, etsaiari zuzenean kalte gehien egiten zion borroka mota zelako. Eta kontua da borroka mota horrek ondorio latzak utzi zituela. Alde batetik, ekintza politikoa zen heinean, ekintza hori aurrera eramaterakoan, militante orok izan behar zuen gaitasuna era guztietako balorazioak egiteko ekintza burutu aurretik. *Hor jotzen badugu, zein izango dira ondorioak ekonomian? Izan daiteke hau, hau eta hau.* Horrek eskatzen du militante orok prestakuntza izan behar duela neurtzeko eta baloratzeko ekintza bakoitza egin aurretik zein izan daitezkeen ondorio politikoak. Sekula ez duzu guztiz jakingo zer gertatuko den, baina saiatu behar duzu aurreikusiten. Hori ongi egiteko prestakuntza behar da, eta zuk ongi diozun bezala, izan ditudan gizon-emakume kide batzuek, nire ustez, ez zuten behar zen prestakuntza maila *Era-kundeko* militante izateko.



Garak argitaratu duen liburua.

■ Carrero Blancoren aurkako atentatuaren ostean, ETak kanpo harremanetako lanak egiten jarri zintuen. Nola zen zure bizitza orduan?

Hasieran, iheslari izanik bizi legala neramanean, Bidarteko (Lapurdi) kooperatiba batean egiten nuen lan, etxegintzan, bizitza eta familia ateratzeko, eta paperak nituen. Nire bizitza nola zen ikus dezazun, adibide txiki bat jarriko dizut: ostiral arratsaldean amaitzen nuen lana, etxera joan, jantziak aldatu, Parisera gaueko tren hartu, Parisera 07:00etan heldu, egin beharreko harreman politiko edo bestelakoak egin, Bruselara joateko tren hartu, joan eta han gauza bera; Brusela, Alemania, Herbehereak edo edonora izan zitezkeen, egin beharrekoak egin eta igande goizean bueltatzen nintzen Parisera, han egin beharrekoak egin, gaueko tren hartu, eta astelehen goizeko 07:00etan etxera iritsi, arropa aldatu eta lanera joaten nintzen.



Josu Urrutikoetxea Parisen.

Hori asteburu askotan; pentsa zer nolako familia bizitza. Eta ilegala izanik, zauden tokian zaude, dituzun bitartekoekin, eta paper faltsuekin bidaiatzen duzu trenez edo autoz. Oso lan zabala da nazioartekoa. Garai haietan Euskal Herriarekiko sostengu komite pilo a zegoen European eta haiekin harremanak mantendu behar ziren, politikoki elikatu, eta ETaren harreman politikoak ere bazeuden jende piloarekin, beste erakundeetako militanteekin... eta gero bazeuden beste betekizun batzuk, *tresneria* lortzea eta behar ziren mila gauza lortzen saiatzea. Etengabeko lana zen, izugarria.

■ **Liburuan diozu Europa osoko jende anonimo askok hartu zuela parte ETaren borrokan eta askotan ahazten direla. “Haiek, beren neurrian, dena eman zuten”, dira zure hitzak. Esan dezakezu zerbait pertsona horiei buruz? Nondik etortzen zen jendea?**

Nik uste gutxietsi egiten dela fenomeno. Euskal Herrian gauden lekuan gaude milaka eta milaka anonimori esker, eta horien artean dago beste herrialde batzuetatik dena ematera etorritako jendea. Horiek ere merezi dute beren omenaldia. Denetarik egon da: Frantziako Estatukoak, suitzarrak, holandarrak, flandestarrak, belgikarrak, italiarrak, eta Europako beste zenbait tokitakoak. Haiekin harremana zegoelako etortzen ziren gehien bat, haiek sostengu komiteren batekoak zirelako askotan –ez beti–, bazegoelako gertutasuna borrokarekiko eta zapalkuntza nazionala eta soziala jasaten zuten herriarekiko. Gehiena ezker-ezkerreko jendea izaten zen, bat egiten zuena guk Euskal Herrian generaman eta daramagun borrokarekin.

■ **Francoren heriotza, Txibertako elkarrizketak, demokraziaren etorrera Hegoaldean. Eta zu, garai horretan, ETaren Saint-Amandeko**

asanbladan zigortu zintuzten arau bat haustegatik: egindako gastuen fakturak eta tiketak ez aurkezteagatik. Zuk argudiatu zenuen ezin zenituela horiek gainean eraman, oso arriskutsua zatekeela Poliziak harrapatuz gero. Hala ere, zigortu zintuzten. Ekintza talde batera pasa zintuzten. Gainera, garai hartan zure seme Egoitz jaio zen (1974) eta kontatzen duzunez, militantzia guztiaren ginetik jarri zenuen. Lehentasun bakarra zen. Liburuan gaiari buruz hitz egiten duzunean, nabari zaizu gauzak ezberdin ikusten dituzula orain. Hala da?

Gaizki kudeatu nuen. Momentu hartan ez nuen horretan pentsatzen, zeren nire neska-lagunak nik bezala pentsatzen zuen. Nik hautua egin nuen, neska-lagunak hautua egin zuen, baina seme-alabek ez zuten hautu hori egin. Eta beraiek txiki-txikitatiki hori jasan dute inkontzienteki. Hori ateratzen da beraiekin hitz egiten dudanean. Ateratzen zaie eta niri ere ateratzen zait.

#### ■ **Ez zinela han egon?**

Beraiek ez dute horrela bizi. Beraiek beste era batera bizi izan dute aitarren falta. Beraiek diote “zure egin beharra zen eta kito”. Belaunaldi berri batek, kasu honetan Josu Muguruzak eta abarrek, begiak ireki zizkidan. “Bai, jakina, borrokatu behar dugu, baina borrokaz gain ere badago gehiago, badago familia bizitza, harremanak eta abar”, esaten zidaten. Ni borrokan murgilduta nengoen eta beste guztia bigarren mailan utzia nuen. Uste dut arrazoi a zutela, horregatik, nire seme-alabetan hirugarrena gaztea da, 13 urte egingo ditu orain eta baliatzen dut berarekin ahalik eta gehien egoteko, hemen nagoenez gero.

■ **Garai horietan, zure autoaren azpian lehergailu bat leheratu zen. Espainiar aparatuek zuzenki ETako militante bat hiltzeko**

antolatutako lehen atentatua izan zen. Gero, zu zeunden etxera ere joan ziren zu bahitzera, baina ez zeunden han. “Suposatzen dut zerrrenda hartan geundenon patua *Pertur-ek, Naparra-k* edo Joxik eta Joxeanek izan zuten bera izango zela”, diozu.

Hala da. Baina momentuan ez duzu hori pentsatzen. Erakundearen sartzen zarenean, ni 17 urterekin, ez duzu kalkulatu zer nolakoak izango diren ondorioak. Badakizu atxilotu, *ostiatu*, torturatu edo hil zaitzaketela. Hori guztia hor dago, baina ez diozu horri heltzen, inkontzienteki daramazun zer bait da. Eta urteak joan ahala, ikusten duzu horrela dela, hori dela zure patua milite gisa. Nik zorrea izan dut, beste kide batzuk bidean geratu dira, erailak izan direlako edo eritasunez edo istripuz hil direlako, baina niri hori gertatzea ere aukera bat zen.

■ **Liburuan diozu porrotak ongi gogoratzen ditugula euskaldunok, baina garaipenak ahazten zaizkigula eta Lemoizi tarte on bat eskaini diozu. Amaiera partean diozu ETak borroka hartan parte hartu izan ez balu, gaur egun zentral nuklearra martxan egongo zatekeela, baina hala ere, politikoki ez dela zuzena hori esatea, eta beraz, ETak borroka hartan izan zuen jarduera estali egiten dela. “Gure partez, batzuetan badirudi iraganak lotsa ematen digula”.**

Batetik, azterketa politikoa egiten delarik, testuinguruan kokatu behar da. Nik hori gaur egunetik diot eta jabetzen naiz, agian, batzuentzat ez dela interesgarria horretaz hitz egitea, nahiz eta horrek tripako mina ematen didan. Testuinguru politiko bakoitzean hartu beharreko erabakiak hartu behar dira, egin beharreko apustuak egin. Euskal Herriari buruzko hausnarketak egiten ditugunean, ez dira porrotak



**“ERA GUZTIETAKO HERRI BORROKA IZAN ZEN LEMOIZEN AURKA, BAT EGINDA: DESOBEDIENTZIA ZIBILA, MANIFESTAZIOAK, ETA-REN BORROKA BORTITZA, BESTE ERAKUNDE BATZUEK... ETA DENAK ELKARREKIN LORTU GENUEN GERATZEA. ETA HORI ESAN EGIN BEHAR DA”**

bakarrik izan, garaipenak ere izan ditugu. Adibidez, gaur egun Ezker Abertzalea dagoen tokian egotea, hamar urte luzez dena debekatua eduki dugunean... ea non aurkitzen duzun munduan horrelako erresiliencia duen herri bat, halako egoera batetik atera eta gu gauden bezala dagoena. Hori ez da inondik ere porrota, nahiz eta gure estatu zapaltzaileak horrela saldu nahi duen.

Bestetik, horregatik diot Lemoiz gogoratu egin behar dela. Ez gara sartuko kaka mugitzera, baina gogoratu bai. Era guztietako herri borroka izan zen, bat eginda: desobediencia zibila, manifestazioak, ETaren borroka bortitza, beste erakunde batzuek... eta denak elkarrekin lortu genuen Lemoiz geratzea. Eta hori esan egin behar da, gure kontakizunaren barnean egon behar da. Beste gauza bat da horrekin ez ibiltzea harrokeriatan edo makina atzera begira jartzen. Baina uste dut ikasi egin behar dugula iraganeko momentu horietatik, onak eta txarrak, aurrera egiteko.

■ **Felipe Gonzálezen aroari buruz diozu: “Gogorra izan zen 80ko hamarkada, gogor-gogorra.**

frankismoaren haustura egin ez zuen estatuaren defendatzailearik sutsuena bilakatu zen PSOE. Erakundeak, eta askapen mugimenduak, egoerari aurre egin zioten, eta Estatu horretaz jabetu zen. Horregatik areagotu zituen errepresioa eta guda zikina. Oso zaila da bere handitasun osoan ikustea egoera hartan zer borroka-dinamika izugarritan murgilduta zegoen gu bezalako herri txiki baten askapen mugimendua. Eta parean bi estatu genituen”. Nola gogoratzen duzu 1980ko hamarkada?

Oso gogorra, baina oso aberatsa. Gutxitan baloratu da horrela. Hamarkada horretan ikasgai potoloak atera genituen edo ateratzeko aukera izan genuen. Euskal Herria bezalako herri txiki batek bi estaturen aurka –hauek izan zituzten laguntzaileak barne– egin zuen borrokatik munduko beste prozesu askok ere ikasgaiak atera zituzten. Ikasgai potoloak, besteren artean, nola egin ahal zaion aurre bi estatu eta abarren errepresioari, eta hori egiteak zer dakarren. Lehen aipamen txiki bat egin dut, zer nolako parte hartzea duten irakaspen horretan milaka eta milaka anonimok. Baita anonimo ez diren askok ere, nazio askapenerako euskal mugimenduan egon diren beste erakundee-tako partaideek, hala nola KASeko erakundeetako kideek. Izugarritzko lana egin zuten, bai sindikalki, bai gazteen esparruan, bai feminismoan... Hori dena mahai gainean jarrita ikasgai garrantzitsuak atera behar genituzke eta uste dut ez direla atera, argazki bat bakarrik geratu da, iluna, latza, hildakoak eta beste. Eta herri borroka, herri lana, herri elkartasuna albo batera geratu dira; herriaren sufrimendua ere bai, jakina. Eta balore horien arabera, jende askoren inplikazioari esker, aurre egin genion herri gisa estatuen zapalkuntzari.

■ Aurrera jarraitu aurretik galdetu nahi dizut: askatasunez hitz egin dezakezu ETari buruz? Bai.

■ Kontua da ETA frankismo amaieran zuen izugarritzko babes soziala galtzen hasi zela pixkanaka. Emilio Lopez Adan 'Beltza'-k *Borroka armatua Euskadin* liburuan aipatzen du, besteren artean, ETaren lehen hamar bat urteetan indar handia jartzen zela pedagogia egiten, zein izan zen ekintza azaltzen, zergatik, hildakoa nor zen eta abar, eta gero hori indarra

galtzen joan zela eta hildakoak nor ziren geroz eta modu azalekoagoan aipatzen zirela, hainbat ekintza komunikatu berean...

...beno hori izan daiteke bere burua justifikatzeko modua. Pixka bat baino gehiago ezagutzen dut eta uste dut ez zela horrela izan. Ezin dira planteamendu berak egin. 1960ko hamarkadan noizbehinka egiten ziren ekintzak eta 1980koan, askotan, astean lau ekintza. Atera behar baduzu bakoitzarekin agiri bat... Jar dezagun adibide bat: egiten bazen *txibatoen* aurkako atentatu bat, Lemoizen aurkako beste bat –begiratu

hemerotekan zenbat ekintza egiten ziren Lemoizen aurka astean... orduan zer egin behar duzu, etengabe ekintza bakoitza azaldu ala egindako guztiaren irakurketa politikoa?

■ 1980ko hamarkadan, estrategia zenez estatua kolpeka eseraztea negoziazio mahaian, geroz eta atentatu potoloagoak egiten ziren. Bomba autoaren gisako arma itsuekin nabarmen hasi zen igotzen hildako zibilen kopurua, eta ezbeharrak publikoki deitoratzen baziren ere, jarraitzen zen metodo berak erabiltzen. Ikus-



ten duzu metodo horiek erabili izanak, ETAr "terrorista" etiketa jartzea erraztu ziela estatuei eta babes sozialaren galeran eragina izan zuela?

Nahitaez jarriko ziguten "terrorista" etiketa. Estatuaren aurka ari zaren heinean, berak tresna guztiak erabiliko ditu zu izorratzeko. Gure borrokarekin ez genuen estatua gaindituko, eta helburua zen estatua eseraraztea minimo demokratiko batzuk lortzeko negoziazio bidez, herri gisa aurrera egiteko. Asko sinplifikatzea da esatea ETA nolabaiteko erakunde erromantikoa zenean eta ez zuenean jende gehiegi hiltzen, jendea ados zegoela, baina albo kalteak hasi zirenean, izan auto-bonbak edo bestelakoak, orduan urrunduzela jendea. Horrela izan balitz gaur egun ez ginatkeen egungo tokian egongo.

■ **Eta zure ustez zer gertatu zen babes soziala galtzeko?**

Normala dela. Ikusita zer borroka bortitza generaman eta zer nolako



**"AKATS BATZUK EGIN ZIREN, ZALANTZARIK GABE. EKINTZA MOTA BATZUK EDO EKINTZA FRONTE BATZUK EZ ZIREN EGOKI ERAMAN"**

albo kalteak sortzen zituen, normala dela jendeak esatea "ostia, honek zama sortzen du". Zama nekatzen du, hori horrela da. Baina nik uste dut jendeak sakonki pentsatzen bazuen 1980ko hamarkadan bidea hori zela, 2000n ere berdin pentsatzen zuela askok, nahiz eta zama astunagoa izan. Horrek ez du kentzen, eta behin baino gehiagotan esan dut, *Erakundearen* egiteko manera batzuk ez zirela egokiak izan. Akats batzuk egin ziren, zalantzarik gabe. Ekintza mota batzuk edo ekintza fronte batzuk ez ziren egoki eraman.

■ **Zer gogoeta egiten duzu ETAk sortutako minaz?**

Horrelako borroka bortitza erama-teak dakarren ondorio latza izan zela. Inork ez luke nahi halakoak gertatzea, baina zoritxarrez gertatu dira, horrek ez du atzera bueltarik eta sentitzen dut horregatik. Nik ez diot gure borroka ez zenik latza eta gogorra izan, baina kontuan hartu behar da guri milaka basakeria egin dizkigun eta neurtu ezinezko albo-kalteak eragin dizkigun estatuaren aurka ari ginela, eta guri hori aurpegiratzea, nork eta biolentziaren pribilegioa duen estatuak... uste dut askoren jarrera hipokrisian oinarrituta dagoela.

■ **Hamarkada baten ostean, Aljerreko negoziazioak iritsi ziren. Horien harira rol garrantzitsu bat zenuela diozu liburuan, baina ETArekin alde bakarreko su-etena baino bi egun lehenago atxilotu zintuzten Ipar Euskal Herrian. Zein zen jokatu behar zenuen rola?**

Han egon behar nintzen. Hainbat



URRUTIKOETXEA BENGOTXEA SENDIA

Josu Urrutikoetxea eta Txomin Iturbe pilotan jokatzen Parisen, 1979an.



**“USTE DUT ERAKUNDEKO ZUZENDARITZAK ALJERREN EZ ZUELA SOKA TENKATU BEHAR, BAIZIK ETA ASKATU PIXKA BAT, UTZI DENBORA PASATZEN. NEGOZIAKETA PROZESUETAN AHALEGINDU BEHAR DA MAHAITIK AZKENA ALTXTATZEN”**

militantek parte hartze zuzena izan genuen Aljerrekoaren prestakuntzan, goitik behera, bai han bertan, baita hemendik ere. Eta *Erakundeak* su-etena emateko erabaki politikoa hartu zuen, Espainiako Gobernuari Aljerren elkarrizketa horiek izatea errazteko. Datu bezala, atxilotu eta Fresnesko espetxera eraman nindutenean, ETak eskatu zuen kide batzuk Aljerrera eramateko, ni barne, baina ez zuten onartu. Beraz, nik ez dakit atxilotu izan ez banindute fisikoki nola gertatuko zen, baina zuzenki edo ez-zuzenki parte hartuko nuela badakit, nire zeregina baitzen nazioartea, eta era naturalean horren jarraipena egingo nuen. Ziurrenik hara joanez eta aurpegia eman gabe, horretarako bai baitzeuden beste kide batzuk, *Antton* [Eugenio Etxebeste] eta beste.

■ **“Aljerreko elkarrizketak hasi zirenean, Erakundeak kideok ez geneukan esperientziarik hizki handiko negoziazio prozesuetan, saltsa handi horietan, aritzeko. (...) Distantziatik, esango nuke, agian gerria edo malgutasun pixka bat falta izan genuela. Eta ez bakarrik prozesu horretan, 2005ean ere hori ikusi nuen Erakundeak Zuzendaritzan. Hau da, negoziaketa batzuetara ezin da joan hau edo ezer ez pentsamoldearekin, edo KAS alternatiba edo ezer ez”, diozu liburuan. Ez zen jakin abaguneak baliatzen?**

Ez da hain sinplea. Testuinguru ezberdinak dira.

■ **Aljerrekotik has gintezke...**

Aurretik esan behar dut ez garela aztiak. Atzera begiratuta ikusten dut han zeuden kideak oso ongi prestatuta zeudela eta bazekitela zer nahi zen, zer nola lan egin behar zen eta nola mantendu harremanak. Alde horretatik ez dut ezer ere esateko. Baina uste dut *Erakundeak* zuzen-

daritzak momentu hartan ez zuela soka tenkatu behar, baizik eta soka askatu pixka bat, utzi denbora pasatzen, eta beti esan dudanez, negoziaketa prozesuetan ahalegindu mahaitik azkena altxatzen. Perspektiba horrekin diot ez zela aski gerrikerik izan. Pixka bat itsututa *inmediateismoarekin* –“zerbait lortu behar dugu”–, denbora pasatzen utzi beharrean, utzi. Beharrezkoa da negoziazio prozesuetan parametro batzuk barneratzea: helburuak zein diren argi jakitea (hitz batzuekin ala beste batzuekin) eta horra nola helduko garen. Prozesu bakoitza mundu bat da, baina badaude gauza orokor batzuk. Prozesuak sekula ez dira linealak, bihurtuz beteak izaten dira, atzera-aurrera egiten dute eta gauza bat argi izan behar dugu: aurrean dugunak ahal duenean, estatua den heinean, ez du hitza beteko. Hori jakin behar dugu eta horren aurrean prestatu behar dugu. Nola? Guk ez badugu borroka bortitza edo armatua erabili nahi, zer beste tresna ditugu aurrera jarraitzeko? Eta altxatu behar badugu mahaitik, altxa daitezela haiek, ez gu. Eta, gainera, prest egon behar duzu mahaian gertatuko dena mediatikoki azaltzen jakiteko.

Tresnarik inportanteena informazioa da, bai barruko eta Ezker Aertzaleko militantziari begira. Noski ezin zaio dena esan, baina esan behar zaizkie gauzak. Eta jendeak barneratu behar du, aurrean duguna gezurretan ariko zaigula eta ez duela hitza beteko. Hori barneratu behar du jendeak, horrela aktibatuko baita. Esaten duzunean “kontuz, fase kritiko batean gaude eta *puteatuko* gaituzte”, orduan mobilizatu behar da jendea. Zergatik? Dagoeneko informatuta dagoelako eta gure kidegoari esan diozulako: “Aktorea zu zara hemendik aurrera, zu zara mugitu behar dena. Ahal duzun bezala. Karrikan, presioa eginez lantokian, unibertsitatean eta abar, kale presioa sortu behar duzu”. Eta me-

diatikoki, guk ditugun tresna gutxi horiekin batera, nazioarteko kanalak landu behar dira azaltzeko prozesua nola eraman den, gauza guzti horiek, A-tik Z-raino zehaztuta egon behar dira prozesu batean sartu aurretik. Nik hori uste dut behintzat.

■ **Eta zer gertatu zen 2005ean?**

Erakundeak zuzendaritza ez zegoela negoziaketa parametroetan, inondik ere. Beraiek planteatzen zuten borroka bortitzarekin oraindik belaunikatuko genuela estatua eta uste dut hori akats politiko sakona izan zela. Ez nengoelako batere ados alde egin nuen 2006an. Nik sinisten nuen, momentu hartan baldintzak zeudelako, posible genuela horrekin aurrera egin, baina ez zen hala izan. *Erakundeak* zuzendaritzak beste perspektiba batekin ikusten zituen gauzak. Ez zuen zentzurik garai hartan eta ez du zentzurik gaur egunetik ikusita ere. Gakoa da nola ikusten den negoziaketa prozesua.

■ **2005ean 20 urte nituen eta bake-negoziaketen apurketa kolpe handia izan zela gogoratzen dut.**

Eta ez hori bakarrik. Zu gazteagoa zinen Lizarra-Garazin kristoren ostia hartu zuen gure herriak. Kristorena.



Zergatik? Prozesu batean sartuta zaudenean, zure militanteei eta herritarrei ez badizkiezu azaltzen nondik norakoak, kristoren *ostia* hartuko duelako. Faltsuki ilusionatzen da eta ilusio hori amildegira erortzen da. Ezker Abertzaleak kristoren kolpea hartu zuen politikoki. Nik hori bizi izan nuen bete-betean, 2000. urtean kartzelatik atera eta herriz herri ibili nintzenean Batasuna prozesuan. Ikusten nuen nola zegoen jendea. *Erakundearen* aurka kristorenak esaten, esan ezin direnak. Kristorenak eta bi esan zizkidaten, ni zerbaiten errudun izan banintz bezala, 1989tik espetxean egon arren. Hala ere, normala da, ez zelako transmisiorik egin eta ez zelako jendea prestatu zetorrenarako. Negoziaketa prozesuan irabazten badugu, bikain, baina ez badugu aurrera egiten, jakin behar da zer egin: B, C eta D planak izan behar dira.



**“LIZARRA-GARAZIN KRISTOREN OSTIA HARTU ZUEN GURE HERRIAK. FALTSUKI ILUSIONATU ZEN ETA ILUSIO HORI AMILDEGIRA ERORI ZEN”**

■ **Lizarra-Garaziko akordioari buruz liburuan diozu, herri batasun horrek pausoak ematen jarraitu izan balu, une batean Espainiako Estatuari aurre egin beharko zitzaiola eta hori zela zu kezkatzen zintuena. Katalunian ikusi genuen zer gertatu zen 2017an. Sakondu dezakezu gogoeta?**

Hori zen nahi zena eta 1977an Txibertan ez zena lortu. Lizarrakoa, mo-

mentu egokia zen Euskal Herri guztiko indarrak zeudelako hor. Nazio bezala aurkezten genuen geure burua, blokean, gure ezberdintasunekin, noski, esanez: “Honaino heldu gara eta denok ados gaude”. Oso indartsua da. Estatuak zer egingo du? Indarra erabili, noski. Baina orduan guk aurrera eginez gero nahitaez talka egingo genuen estatuarekin. Eta gakoa dago informazioan eta transmisioan. Ez baduzu ongi egiten, dena kakaztu eta desilusioa zabaltzen da. Hori gertatu zen. Horregatik, fronte herrikoi nazional bat sortzean, zuk azpitik landu badituzu gazteak, sindikatuak, herriko elkarteak... badakizu ostiak hartuko dituzula, baina kristoren indarra daukazu estatuari aurre egiten jarraitzeko. Eta ikusiko genuke nola egin, baina horretarako berdin balio du negoziaketei buruz lehen aipatu dizudanak: nola joan behar zaren negoziaketetara, barne informazio



**“ERRAZA DA ESATEA  
ERRUDUNA ESTATUA DELA  
BETI, BAI, BADA KIGU ESTATU  
BATEK NOLA JOKATZEN  
DUEN, BAINA HORREK EZ  
DU KENTZEN ERAKUNDEAK  
ERE ERU PARTEKATU BAT  
IZAN ZUELA 2005EKO  
PROZESUAN”**



JON HERNANZ / FOKU

Sozialista Abertzaleak talde parlamentarioa Gasteizen, 2001eko maiatza.

zehatza mugitu behar duzu eta aurre-  
ra begira zer egin jakin behar da. Zer  
tresna erabiliko ditu halako fronte ba-  
tek? Desobedientzia eta informazioa,  
barrura eta nazioartera begira. Hori  
dena gaur egun diot, 2026an teoriza-  
tzen dugu beste testuinguru batetik,  
baina oinarrikoa horrela ikusten dut.

■ **Askatu zintuzten, izan zinen Eusko Legebiltzarreko parlamen-  
taria eta baliatu zenituen hiru ur-  
teak Ezker Abertzaleko Batasuna  
prozesuan herriz herri jendeare-  
kin biltzeko eta tenperatura har-  
tzeko egoerari. Eta halako batean,  
atxilotze arriskua gainean, berriro  
klandestinitatera jo zenuen. Jada  
ez zenituen 20 urte, 52 urte baizik  
eta Espainiako Estatuan garaikur  
bat bilakatzen hasia zinen. Nola  
bizi izan zenuen garai hori?**

Gogorra. Ez dituzu 20 urte eta pisua  
da. Hori hala da, baina ez nuen beste  
irtenbiderik. Beste aukera zen Ameri-  
ketara joatea, baina ez nuen nahi, zer-  
tara joan hara? Nahiago nuen egiten  
nekiena egiten jarraitu, nazioarteko  
adarrean lan eginez. Horrela aurkeztu  
nuen nire burua berriro ere *Erakun-  
dean* eta onartu zuten. Harreman eta  
negoziaketa sailean murgildu nintzen  
buru-belarri, harremanak manten-  
tzen. Euskal Herriko agente ugarire-  
kin, politikoak, sozialak... tenperatura

hartzeko, girotzeko, eta ikusteko non-  
dik nora joan nahi zuen *Erakundeak*.  
Garai hartakoa da fronte ezberdinak  
ixteko hartutako erabakia: Katalu-  
niakoa eta beste. Garai hartako zu-  
zendaritza bidea prestatzen ari zen  
espainiarrei esateko “gu horrela ari  
gara eta uste dugu negoziaketa politiko  
baten bidez gaintu behar dugula  
hau”. Negoziaketa politikoak daka-  
rren guztiarekin egin behar zen hori.  
Horregatik sartu nintzen eta horretan  
aritu nintzen urte horietan.

■ **Liburuan kontatzen duzu Mikel  
Antza eta Marixol Iparragirre atxi-  
lotu zituztela 2004an eta beraiek  
ere bazirela Zapaterorekin nego-  
ziaketa prozesuaren proiektua oso  
argi zutenak...**

...bidea argi ikusten zuten. Erakun-  
deko zuzendaritzak nik pentsatzen  
nuena pentsatzen zuen...

■ **...haien atxiloketak asko katra-  
milatu zuen prozesua?**

Prozesua jadanik martxan zegoen.  
Nahiz eta beraiek atxilotu guk lo-  
tuak genituen Espainiako Estatuare-  
kin harreman zubiak, izan eskutitz  
trukeekin eta nazioarteko gobernuz  
kanpoko erakunde bitartekaritza-  
rekin. Beraz, alde horretatik martxan  
zen prozesua. Kontua da, lehen esan  
dizudan bezala, etorri zen zuzendari-

tza berriak ez zituela gauzak ikusten  
guk ikusten genituen moduan. Alegia,  
kide batzuk atxilotu zituzten, beste  
kide batzuk sartu ziren eta ez zeuden  
parametro beretan. Baina ordurako  
makina martxan zegoen, hitzorduak  
jarrita. Hori ezin zen gelditu.

■ **Eta zer gertatu zen?**

Zuzendaritza berriko kideek uste  
zuten ezer gutxi atera zitekeela hor-  
tik, beren parametroa beste mundu  
batean baitzegoen. Batek esan zuen  
bezala, “hauek gure borrokarekin be-  
launikatuko ditugu”. *Ostias en vinagre!*  
Hori da beraiek ikusten zuten modua.  
Eta horrek ginderamatzen paretaren  
kontra. Makina martxan zegoen, or-  
dea, eta *Erakundeak*, zuzendaritza be-  
rriak, erabaki zuen ni joatea beste kide  
batekin Suitzara, Jon Lurrebasorekin.  
Joan ginen, harremanak abiatu geni-  
tuen, espainiarrek dagoeneko Jesús  
[Egiguren] jarria zuten hor eta maki-  
na martxan zen. Kontua da, negozia-  
tzen aritu ostean, handik bi hilabetera,  
Frantziako Estatura itzuli nintzenean  
*Erakunde*ko zuzendaritzari erakuste-  
ra zer lortu genuen, ez zutela sinisten  
lehenengo fasean lortu genuena.

■ **Liburuan diozu esan zutela  
testuan ez zegoela “autodetermi-  
nazio” hitza, besteren artean.**

Hori txorakeria bat zen, aitzakia bat,

azken batean. Ez baduzu burua horretan, katuari bosgarren hankaren bila ibiliko zara edozerekin. Autodeterminazio eskubidea, horrela esan gabe, beste era batera idatz daiteke. Erabakitze eskubidea hamar forma ezberdinetan jar daiteke. Horrek ez du esan nahi negoziaketa prozesu batean ez dituzunik barneratuta izan behar lehen aipatutako parametroak. Urrunetik ere ez zuten barneratuta, beste mundu batean zeuden. Erraza da esatea erruduna estatua dela beti, bai, badakigu estatu batek nola jokatzeko duen, baina horrek ez du kentzen *Erakundeak* ere erru partekatuta bat izan zuela orduan.

■ **Suitzatik sasira jo zenuen eta dena utzi. Nahiko gaizki pasatuko zenuen ikusirik zuzendaritzaren ikuspegia ez zenuela partekatzen.**

Bai, baina horrela da bizitza. Nik nire bizitza neraman Pirinioetan, Euskal Herriarekin eta familiarekin oso harreman gutxiarekin. Semeaz gain, neska laguna eta kito. Gauzak irakurtzen nituen egunkarietan, baina han nengoen tokian ez nuen aukerarik sare sozialetan sartzeko eta gogorra izan zen kaxotzen artean. Zuk barneratuta baduzu klandestinitateak zer dakarren, aurrera *bolie*.

■ **Orduan, nola amaitu zenuen 2011n Oslon pasaporte diplomatikoarekin?**

Ezker Abertzalean eztabaida bat eman zen. Zuzenean, beste askori bezala, nire iritzia galdetu zidaten, eta une batez agertu zitzaidan Egoitz semea, "hau eman didate zuretzat" esanez. 2011ko Aieteko Konferentziara heldu bitarteko guztia erakutsi zidaten eta esan zidaten Espainiako Estatu ados zegoela *honekin*, *honekin* eta *honekin*, eta ea prest nengoen Norvegiara joateko. Nire zereginetan hori egona zen eta prest nengoen. Hitz egin nuen *Erakunde*ko zuzendaritzako pertsona batzuekin, nire iritzia eman nien eta Oslon elkartu ginen.



**"[NI ZARAGOZAKO ATENTATUAREKIN LOTZEN SAIATZEKO], ARGI DAGO ERABAKI POLITIKOAK DAUDELA, EPAILETZAREN INPLIKAZIO ZUZENAREKIN"**

■ **2011 amaieran, ordea, PPko Mariano Rajoy izendatu zuten Espainiako Gobernuako presidente, eta hark bide hori baztertu zuen. Handik urte batzuetara, desarmearen fasea hasi zen. ETak erabaki zuen amaitzea, baina Espainiako Estatuak garaipen militarra nahi zuen. Nola bizi izan zenuen hori?**

Ez nuen zuzenean bizi izan, urrunetik baizik. *Erakundeak* ez zuen beste irtenbiderik. Ordura arteko prozesu guztiak bilateral gisa ulertu genituen, baina une hartan *estatuaren* jarrera ikusita, PPren gobernuarena, irtenbide bakarra zegoen. Armak han-hemenka barreiatuta genituen, horrek duen arriskuarekin. Herriari esan zitzaion "zuen eskuetatik jaso ditugu eta zuengana doaz". Horrek zekarren gizarte zibilarren parte hartzea. Kristoren garaipena. Hori bakarrik garaipen handia izan zen, oso potentea. Horrek erakusten du zein garrantzitsua den herriaren eta jendartearen inplikazioa borrokan.

■ **Azkenik, ETak bere kabuz borroka armatua behin betiko amaitzea eta disolbatzea erabaki zuen. 2018an azken komunikatuan ahotza eta gorputza jartzeko eskatu zizuten. Zer pasatu zen zure burutik hori irakurri zenuenean?**

Niretzat neurrigabeko ohorea izan zen, noski. Pentsatu nuen kide askorengan, baita milaka anonimoengan ere, kanpotik etorritakoengan. Po-

sitiboki hausnartzen jarrita, heldu gara heldu garen tokira kide askori esker, eta horiengan pentsatu nuen, nahiz eta jakin, horrek oraindik ere jarriko ninduela berriro ere dianan, baina zer esaten duzu: aurrera.

■ **Parisen epaiketa izan berri duzu, 2002 eta 2005 urte artean ETako kide izatea egotzita. Zer moduz joan zen saioa?**

Horrelakoetan nolabaiteko urduritasuna eta tentsioa izaten bada ere, epaimahaia eta bertako buruaren jarrera aitortu behar dut irekia izan zela eta ez erasokorra. Horrez gain, familia, lagun eta EH Bairen babesa izatea lagungarri izan zait horrelako zama arintzeko. Fiskalaren jarrera bortitza normaltzat hartu behar da, zaunka egiten duenaren rola baitu.

■ **Zigortzen bazaituzte, Espainiaratu zaitzake Frantziako Justiziak, Espainian bi auzirengatik epaitua izateko: Herriko Tabernen auzia eta Zaragozako kuartelaren aurkako 1987ko atentatua. Azken horretan 11 pertsona hil ziren, horietarik bost neskatok. Beti esan izan duzu zuk ez zenuela parte hartzerik izan Zaragozakoan. Zerbait gehitu nahi duzu horri buruz?**

Zigortzen banaute edo ez banaute, "afera frantsesak" hor bukatzen dira. 1996tik aurrera, Alcaláko espetxean nengoela, [Baltasar] Garzón epailea saiatu zen ni Zaragozakoan inplikatzen, beste afera askorekin batera. Zenbait gauza jarri zituen mahai gainean, baina ez zuen segidarik izan, ez zegoelako inolako frogarik. Handik urte batzuetara, 2001ean afera berriak izan zuten *pikoloek*, Garzonen "froga" berdinekin. Argi dago horren atzean erabaki politikoak daudela, epailetzaren inplikazio zuzenarekin. Erabaki politikoak, epaileen inplikazioa eta *pikoloen* presioa, hauek estatuaren barruan estatua direla achantzi gabe.



### ■ Espetxean ikusi nahi zaituzte.

Beren helburua hori da. Duela urte batzuk ikusi nuen, nahiko tripako minenez, ETari buruz egin zuten zortzi kapituluko *El Desafío* telesaila. Bukieran, guardia zibil teniente koronel batek esaten zuen ni nintzela pastelaren ginga. Pentsa ze gogoak dituzten.

### ■ Hainbeste sakrifizio, hainbeste min... nola ikusten dituzu borroka honek guztiak eragindako lorpenak?

Milaka eta milaka atxilotu izan ditugu, milaka torturatu, hildakoak alde guztietatik, eta horrek ekarri duen sufrikarioa izugarriaren ostean, 2026an Ezker Abertzalea lehen indarra da Euskal Herri osoan. Hori nonbaitetik etorri da. Ez diot izenik jarriko, baina hori ez dago faltsutzerik. Hori hor dago eta garaipena da.

### ■ Nola ikusten duzu gaur egungo egoera politikoa? Zerbait nabarmendu nahi zenuke?

Beharra betikoa da: etxea oso poli-

ta izan daiteke, teiltatu distiratsurekin, baina oinarri sendoak behar dira. Hau da, likido edo gaseoso deitzen den hori ekiditeko, etxeak sendotasuna behar du. Eta hori ez da lortzen bakarrik instituzioetan egonda. Hori lortzen da gehien bat, urratsez urrats, herriz herri, auzoz auzo, tokiz toki, elkarte elkarte lan eginda kalean.

### ■ Eta Ezker Abertzalea ikusten duzu horretan kontzentratuta?

Horretan egon behar litzateke baita ere. Izugarrizko esku ezkerrekin egiten du lan Madrilen dagoen egoera baliatzen duenean eta hori egin behar da %100. Baina aurrera begira eraikitzen ari garen etxe hori oinarri sendoak jarri behar zaizkio eta hori da irtenbide bakarra. Hau da: kontua ez da hainbeste mundu mailako iraultza egitea, etxean egitea baizik. Hor dago gakoa. Iraultza egin dezagun



**“ETXEAK SENDOTASUNA  
BEHAR DU ETA HORI EZ  
DA LORTZEN BAKARRIK  
INSTITUZIOETAN EGONDA”**

etxean eta horrela egingo diogu aurre mundu mailatik datorkigun eskuin muturraren fenomeno horri. Hor jartzen dut azpimarra, 1970eko urte haietan izan genuen zatiketan hori izan zelako ardatza; eta gaur egun ere badagoelako Euskal Herrian eta ezker mugimenduetan zabaltzen ari den korrante bat, langileen nazioarteko iraultzaren parametroetan. Lehenik eta behin bildu gaitezen etxean eta sendotu dezagun etxekoa. Hor dago gakoa. ●

G U R E  
L A N A K  
Z U R E  
B A B E S A  
behar du

ARGIaren jabeak langileok gara  
eta horregatik askatasunez mintzo gara.

Gure kazetaritza independentea babestu eta aldizkariok paperean jaso ditzakezu,  
zuk nahi duzun diru ekarpena eginda.

Egizu bat urtez urte hazten doan  
ARGIAko komunitatearekin!